BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

417

AGINDUA, 2011ko abenduaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Mungiako (Bizkaia) CEIP «Legarda Alde» HLHI ikastetxearen izen espezifikoa aldatzeko baimena emateko dena.

Mungiako (Bizkaia) CEIP «Legarda Alde» Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxearen izen espezifikoa aldatzeko aurkeztu den proposamena aztertu da.

Espedienteari Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak egin dizkio izapideak eta indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio.

Gai horretan aplikatu beharreko legeria ikusi ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Onartu egiten da Mungiako (Bizkaia) Mungiako (Bizkaia) CEIP «Legarda Alde» HLHI ikastetxeari izen espezifikoa aldatzea: aurrerantzean CEIP «Legarda» HLHI deituko da. Ikastegi hori Mungiako udalerrian (Gipuzkoa) dago, Sabino Arana kaleko 23an, eta 48010878 kode-zenbakia du.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 27a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.